

## **UDALAREN OSOKO BILKURA**

### **2009ko urtarrilaren 20ko aparteko eta premiazko bilera**

#### **BERTARATU DIRENAK**

##### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

##### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CUIEL jn.  
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ and.  
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.  
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.  
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.  
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.  
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.  
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.  
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.  
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.  
EB-B.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.

##### **EZ DIRA BERTARATU:**

PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.  
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.

##### **KONTU-HARTZAILEA**

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

##### **BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA**

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta bederatziko urtarrilaren hogeiko goizeko bederatzia eta bost direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da aparteko eta premiazko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die bileran parte hartzeko deia, hori guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1.b) artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 79. artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, aparteko eta premiazko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

**1.- OSOKO BILKURAREN ERABAKIA DEIALDIAREN PREMIARI BURUZ:** Alkatetzaren 32/09 Dekretuaren berri eman da. Hona hemen hitzez hitz dioena:

*32/09 Dekretua*

*Toki Araubidearen Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.c) eta 46 . artikuluek eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79. artikuluek eta horrekin bat datozenek Udalaren osoko bilkuraren aparteko eta premiazko bilerak deitzeko aukera aipatzen dute.*

*Une honetan, premiazkoa da Udalaren Osoko Bilkurak honako hau onestea: inbertsio proiektuak egitea eta horiek finantzatzeko baliabideak eskatzea, Tokiko*

*Inbertsioetarako Estatuko Fondoaren pentzura. Fondo hori azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretuak sortu zuen.*

*Gai honi premiaz heldu behar zaio, eskabideak aurkezteko epea laster mugaeguneratuko delako.*

*Horren ondorioz, HONEN bidez, Udalaren osoko bilkuraren aparteko eta premiazko bilera deitu nahi dut, 2009ko urtarrilaren 20rako. Honako aztergai-zerrenda izango du:*

*1.- Osoko Bilkuraren erabakia, deialdiaren premiari buruz.*

*2.- Udalaren Osoko Bilkurak honako hau onestea: inbertsio proiektuak egitea eta horiek finantzatzeko baliabideak eskatzea, Tokiko Inbertsioetarako Estatuko Fondoaren pentzura. Fondo hori azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretuak sortu zuen.*

## **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** Udalaren osoko bilkurak deialdia premiazkoa dela erabakitzea.

## **2.- INBERTSIO-PROIEKTUAK ONESTEA ETA HORIEK FINANTZATZEKO BALIABIDEAK ESKATzea, TOKIKO INBERTSIOETARAKO ESTATUKO FONDOAREN PENTZURA.**

2009ko urtarrilaren 15eko Tokiko Gobernu Batzarrean emandako 3. irizpenaren berri eman zen. Hitzez hitz kopiatuta, hauxe dio:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2008ko urtarrilaren 13an eman zuen 5. irizpenak hauxe dio:

Udal Zerbitzu Teknikoek azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretuaren edukiaren berri eman dute. Horren bidez, Herri Administrazioen Ministerioari atxikitako Tokiko Inbertsioetarako Estatuko Fondoaren eratu zen, batez ere enplegua sortzen duten inbertsioen arloan eta udal-esparruan premiazko jarduerak egitea finantzatzeko. Xedapen hori Lurralde Lankidetzako estatu-idazkariaren 2008ko abenduaren 9ko ebazpenak garatzen du. 2008ko abenduaren 10eko BOEn argitaratu zen.

Fondoari heldu ahal dioten obren oinarrizko ezaugarriak hauek dira:

- Kontratuen xede diren obrek plangintza berrikoak eta berehala egitekoak izan behar dute eta, beraz, ezin dira agertu udalaren 2009rako aurrekontuan.
- Finantza daitekeen zenbatekoak obra egiteko benetako zenbatekoa estaliko du, muga honekin: lizitazio-aurrekontua gehi BEZ.
- Eskabideak bide elektronikotik aurkeztu beharko dira, [www.map.es](http://www.map.es) orrialdearen bitartez, eta epea 2009ko urtarrilaren 24an amaituko da.
- Eskabideei azalpen-memoria erantsiko zaie, proiektua onetsi duen administrazio-organo eskudunaren erabakiarekin batera.
- 20 eguneko gehieneko epean, Lurralde Lankidetzako estatu-idazkariak proiektuak finantzatzea baimentzeko ebazpena emango du, eta Herri Administrazioen Ministerioaren web orrialdean argitaratzea aginduko du.
- Obrak adjudikatu eta gero, egoera horren ziurtagiria egingo da, eta udalak bere gain hartuko du kontratuaren adjudikazioaren ondorioz sortu beharreko enpleguaren jarraipena egiteko konpromisoa, eta [www.map.es](http://www.map.es) orrialdera bidaliko du.

- Ziurtagiria jaso eta gero, Tokiko Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiak udalaren aldeko baliabideak emango ditu, obren adjudikazio-zenbatekoaren % 70 gehi BEZ.
- Obrek amaituta egon beharko dute 2009ko abenduaren 31rako. Hala ere, egoera jakin batzuetan, luzapena eman ahal izango da, baina luzapen hori ezin izango da 6 hilabetetik gorakoa izan.
- Obrak amaitu eta gero eta sortutako lanpostuak behar bezala frogatzen direnean, fondoan azken sorta emango da.
- Izapidetzea premiazkotzat joko da epeen ondorioetarako.
- Udalek 30 egun naturalen barruan ordaindu beharko diete obren prezioa kontratistei, obra-ziurtagiriak egiten direnetik zenbatzen hasita.
- Banatzeko irizpidea biztanle-kopuruarekiko proportzionala da, eta Leioari 5.171.066 € dagozkie.
- Baldintzen agirietan, eskaintzak balioesteko adjudikazio-irizpidetzat hartuko dira obra-kontratuaren eraginez eginiko enplegu-sustapena neurtzeko adierazle nabariak.

Jarraian, batzordeburuak espediente honetan sar daitezkeen obren zerrenda bat azaldu du, eta proiektu hauek onestea proposatu du.

Zk.	Izena	Ezaugarriak	Zenbatekoa (BEZ barne)
1	TXORIERRIKO SANEAMENDUA; ZENBAKI BIKOITIAK (34/50)	Hormigoizko kolektore zaharraren ordezkari 400 mm eta 315 mm-ko 2 hodi jartzea.	269.015,58 €
2	CERVANTES PLAZA BIRGAITZEA	Drainatzea eta zoladura berritzea, pergola garbitzea, argizatzea hobetzea, eustorma gaineztatzea, jolas-eremua estaltzea.	250.625,42 €
3	UDALERRIKO ZEBRA-BIDEEN IRISGARRITASUNA EGOKITZEA	45 kasu aurkitu dira. Horietatik, 6 kasutan bi espaloietan esku hartu behar da, eta, 39 kasutan, espaloi bakarrean. Guztira: 51 jarduketa.	80.425,00 €
4	SARRIENAKO KIROL-INSTALAZIOAK HANDITU ETA EGOKITZEA	2 jarduketak osatzen dute: harmailen eraikin berria eta belar artifizialeko 2 zelai egokitzea.	1.820.000,00 €
5	PINOSOLO/TORRESOLO-KO KIROL ETA JOLASERAKO EREMUA	Kirol eta jolaserako kanpoko aldea, Pinosoloko kiroldegiaren alboan (igerilekua, paddela, tenisa, haurrentzako jolasak, jogginga, etab.).	2.751.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>			<b>5.171.066,00 €</b>

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak**, batzordea osatzen duten kide guztiek aho batez erabakita (EAJ-PNV, PSE-EE-PSOE, PP eta EB-Berdeak talde politikokoetakoak dira), jarduera hauek bidezkoak direla ebatzi zuen:

- Aurreko atalean aipatutako proiektuak onestea. Zenbatekoa, guztira: 5.171.066,00 □ (BEZ barne).
- Horiek finantzatzeko eskaera aurkeztea onestea, Tokiko Inbertsioetarako Estatuko Fondoaren pentzura. Fondo hori azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretuak sortu zuen.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK AHO BATEZ ADIERAZI DU AIPATUTAKO PROPOSAMENAREN ALDE DAGOELA.**

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

**UDALAREN OSOKO BILKURAK, HURA OSATZEN DUTEN KIDE GUZTIEK AHO BATEZ ERABAKITA (EAJ-PNV, PSE-EE-PSOE, PP ETA EB-BERDEAK TALDE POLITIKOETAKOAK DIRA), JARDUERA HAUEK BIDEZKOAK DIRELA EBATZI ZUEN:**

**- AURREKO ATALEAN AIPATUTAKO PROIEKTUAK ONETSI EGINGO DIRA. ZENBATEKOA, GUZTIRA: 5.171.066,00 € (BEZ BARNE).**

**- PROIEKTU HORIEK FINANTZATZEKO ESKAERA AURKEZTEA ONETSI EGINGO DA, TOKIKO INBERTSIOETARAKO ESTATUKO FONDOAREN PENTZURA. FONDO HORI AZAROAREN 28KO 9/2008 ERREGE LEGE DEKRETUAK SORTU ZUEN. HORRI ERANTSITAKO AGIRI OSAGARRIAK ERE AURKEZTUKO DIRA.**

Eta goizeko bederatzia eta hamabost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,